


MUNDU BAT BERTSO





Profazadorak
XIX. mendea



Fernando Amezketarra
1764-1823, Amezketza



Bizenta Mogel
1782-1854, Azkoitia



Franzisko Petrirena,
"Xenpelar"
1835-1869, Errenteria



Joxepa Antoni Aranberri
"Xenpelar"
1865-1943, Errenteria



Txirrita
1860-1936, Hernani



Mariana Hargain
1860-1925, Ezpeleta



Basarri
1913-1999, Errezil

Lehen Hezkuntzarako *Mundu bat bertso* liburua BERTSOZALE ELKARTEAn sortu eta diseinatu da, eta LANKU Bertso Zerbitzuak S.L.ren ardurapean maketatuta eta inprimatu da.

Hizkuntza zuzenketak: Arkaitz Goikoetxea Arriola

Marrazkiak: Mirari Sagarzazu Sacristan

Argazkien iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Esker bereziak: *Mundu bat bertso* liburuan agertzen diren bertsolari eta sortzaile guztiei

© 2016 Lanku Bertso Zerbitzuak S. L.
Martin Ugalde Kultur Parkea z/g
20140 Andoain (Gipuzkoa)

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN: 978-84-945409-2-9
Lege-gordailua:

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola bikoiztea, banatzea, jendurrean jakinaraztea zein eraldatzea, beraren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Aipatutako eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke (Kode Penaleko 270. artikulua eta hurrengoak).



Xalbador
1920-1976, Urepele



Iazkao Txiki
1926-1993, Iazkao



Xabier Amuriza
1941, Etxano



Andoni Egaña
1961, Zarautz




Maialen Iujanbio
1976, Hernani



Amets Arzallus
1983, Hendaia



Alaia Martin
1987, Oiartzun



Presta dezagun gure bertso saioa!

1 Geure buruari.....	7
2 Ez gaude konforme!.....	15
3 Gabonetako zorion mezua	25
4 Neguko Eskea	39
5 Guk euskaraz	45
6 Ipuina bertsoan	55
7 Asmakizunak	69

Teknikari buruzko azalpenak eta ariketak

1 Neurria eta doinua	77
2 Atzekoz aurrera.....	87
3 Errima	91

Nire bertsoak	103
---------------------	-----



NIK EZAGUTZEN DUT HORI !



Iratxe Ibarra



Iñaki Viñaspre



Amaia Agirre



Ander Lizarralde



Uxue Alberdi



Unai Muñoa



Iñaki Iturriotz



Onintza Enbeita



Xabier Terreros



Ainhoa Agirreazaldegi



Etxahun Lekue



Arrate Illaro



Josu Landeta



Rosi Lazkano



Arkaitz Estiballes



Estitxu Arozena



Julio Soto



Oihana Bartra



Jokin Labayen



Jone Uria



Xabier Silveira



Sustrai Colina



Unai Mendizabal



Aitor Mendiluze



Maddalen Arzallus



Unai Ormaetxea



Miren Amuriza



Sebaxtian Lizaso



Oihane Perea



Amets Arzallus



Jexux Mari Irazu



Aitor Sarriegi



Maialen Lujanbio



Jokin Uranga



Xabier Irakulis



Arantza Plaza



Iñaki Gurrutxaga



Igor Elortza



Miren Artetxe



Unai Iturriaga



Andoni Egaña



Angel Mari Peñagarikano



Aimar Karrika



Aitor Arrutia



Alaia Martin



Amaia Iturriotz



Unai Mendibil



Ander Elortegi



Ane Labaka



Arkaitz Oiartzabal



Arkaitz Zipitria



Beñat Gaztelumendi



Bixente Gorostidi



Elixabet Pagola



Eñaut Uruburu



Eneritz Artetxe



Fredi Paia



Idoia Anzorandia



Igor Meñika



Iker Gorosterrazu



Irati Erkizia



Xan Alkhat



Jon Maia



Jon Martin



Josu Telleria



Joxema Leitza



Uxue Diaz de Cerio



Maddi Sarasua



Maialen Akizu



Mainer Arregi



Manex Agirre



Mikel Artola



Nerea Elustondo



Nerea Urra



Nerea Ibarzabal



Odei Barroso



Oihana Iguaran



Oskar Estanga



ZOPAN ERE BERTSOLARIAK

Aurki ditzagun bertsolari hauen abizenak edo ezizenak.

E	T	X	E	A	L	B	E	R	D	I	E	I	Z	A	G
I	O	C	R	E	S	A	L	A	R	M	O	G	R	P	I
Z	A	O	I	R	I	P	E	R	E	A	K	O	P	I	L
M	I	L	K	E	R	U	K	O	T	N	I	G	I	R	A
U	R	I	A	S	O	L	O	A	O	E	N	A	K	A	Z
E	R	N	A	I	P	E	K	I	S	L	A	R	A	G	K
N	G	A	Z	T	E	L	U	M	E	N	D	I	R	U	A
D	O	R	K	U	L	I	M	A	K	I	L	S	O	T	O
I	K	O	A	R	U	M	E	N	U	A	I	O	A	S	T
Z	I	A	R	R	S	O	A	I	L	G	L	R	L	I	X
A	X	L	R	I	A	N	M	O	P	A	I	O	E	N	I
B	K	O	A	S	Z	L	U	J	A	N	B	I	O	D	K
A	U	M	E	G	K	I	R	O	D	A	E	D	N	R	I
L	R	U	T	A	O	M	I	A	E	R	R	I	A	O	M
A	N	E	X	R	N	O	Z	L	T	D	T	O	Z	M	A
R	E	P	E	Z	A	N	A	K	P	A	S	T	U	E	N



Maialen



Sustrai



Lazkao



Miren



Julio



Beñat



Jone



Uxue



Unai



Oihane

GEURE BURUARI

Geure burua aurkezteko koplak egingo ditugu.

Horretarako, ereduak ikusiko ditugu lehenik:
pertsonaiak deskribatzen dituzten bertso sortak abestuz.

Gainera, zenbait doinu eta neurri ezagutuko ditugu:
kopla txikia, kopla handia, zortziko txikia, zortziko handia...

Prest?
Has gaitezen kantuan!





Herrikoia



IKUSI NUENEAN



Doinua:

Ikusi nuenean

Kopla txikia (7/6 silaba)

Ikusi nuenean
zure ile **latza**,
iruditu zitzaidan
sorginen **erratza**.

Ikusi nuenean
nik zure **kokotza**,
iruditu zitzaidan
gaztaina **morkotsa**.

Ikusi nuenean
nik zure **kopeta**
iruditu zitzaidan

Ikusi nuenean
nik zure **sudurra**,
iruditu zitzaidan
lukainka **muturra**.

Ikusi nuenean
nik zure **besoa**,
iruditu zitzaidan
Irati **basoa**.

Ikusi nuenean
zure **ipurdia**
iruditu zitzaidan

Ikusi nuenean
zure **belarria**,
iruditu zitzaidan
azaren **orria**.

Ikusi nuenean
nik zure **begia**,
iruditu zitzaidan
gerezi **handia**.

Ikusi nuenean
iruditu zitzaidan

PUNTUA, BERTSO-LERROA ETA ERRIMA

Har dezagun *Ikusi nuenean* kopla doinua



Zenbat puntu ditu? _____

Nola hasten da beti lehen puntua? Zer dio bertso-lerro horrek?

Nola hasten da beti bigarren puntua? Zer dio bertso-lerro horrek?

Puntua esaldi bat da. Zer egiten du puntuaren azken hitzak?



Hara hemen bi esaldi, elkarrekin errimatzen dutenak. Idatz itzazu modu egokian, bertso-lerroetan bereizita eta osatu kopla.

Begira zaude baina alferrik **ordea**
politena barruan daramat **gordea**

7

6

7

6



**Maialen
Lujanbio
Zugasti**



**Taldea
Igelaren banda**



Doinua:
Familia blues
Kopla handia (10/8 silaba)



FAMILIA BLUES

Etxekoandrea da nire ama,
lan egiten du **gogotik**,
eskerrik asko entzun ez duna
ezkondu zen **egunetik**
etxekoandrea da nire ama
ezkondu zen egunetik

Aitak peoian konplejua du
sakona ta **nabarmena**,
etxe barnean agindu nahi du
kanpoan ezin **duena**
aitak peoian konplejua du
kanpoan ezin duena

Burmuinik ez dun anai bat badut,
fisikoki nahiko **guapo**,
lehengo asteen fitxatu zuten
ETB-ko **azafato**
burmuinik ez dun anai bat badut
ETB-ko azafato

Frantziskanoa da nire osaba
aritzen da **baratzian**
kriston puzkerra irteten zaio
atxurrakin **makurtzian**
frantziskanoa da nire osaba
atxurrakin makurtzian

Nik sosik ez dut ta ibiltzen naiz
borondatea **eskatuz**
bizitzeko lain ateratzen dut
kajoietan **arakatuz**
nik sosik ez dut ta ibiltzen naiz
kajoietan arakatuz

Gerriko beltza da nire amona
aritzen da **Karatean**
_____ **atakean**
Gerriko beltza da nire amona
_____ **atakean**

Aitona ballet dantzaria da
hanka altxatzen du **gora**
_____ **gustora**
Aitona ballet dantzaria da
_____ **gustora**

Alkatea da nire izeba
_____ **gustora**
_____ **gustora**
Alkatea da nire izeba
_____ **gustora**



ETENA ETA BERTSO-LERROA


Har dezagun *Familia blues* koplá doinua



Hara hemen bertso-lerro batzuk aukeran. Zein dira egokienak doinu honetan kantatzeko, ezkerreko zutabekoak ala eskuinekoak?

- | | | |
|---|--|--|
| 1 | <input type="checkbox"/> Etxekoandrea da nire ama | <input type="checkbox"/> Nire ama etxekoandre da |
| 2 | <input type="checkbox"/> Aitak peoian konplejua du | <input type="checkbox"/> Peoian konplejua du aitak |
| 3 | <input type="checkbox"/> Burmuinik ez dun anai bat badut | <input type="checkbox"/> Anai batek burmuinik ez dauka |
| 4 | <input type="checkbox"/> Franziskanoa da nire osaba | <input type="checkbox"/> Osaba Franziskanoa denez |



Hartu ezkerreko zutabea. Bertso-lerro bakoitzean, markatu non doan *etena*. 

Hara hemen bi esaldi elkarrekin errimatzen dutenak. Idatz itzazu modu egokian, bertso-lerroetan bereizita eta osatu koplá.


Ni naiz etxeko pirata eta ausartetan **ausartena
aldiro *Bamby* filmearekin negar egiten **duena****

10

8

10

8



G. Albizu



TXAKURKUME BATI



Doinua:

*Urxo zuri polit bat
Kantatzera niazu II
Zortziko txikia (7/6 silaba)*

Albizu bertsolariak txakurra galdu zuen eta, bilatzeko, bertso sorta hau jarri zuen "Bertsolariya" aldizkarian. Begira hitzez nola marraztu zuen bere txakurkumea!

Txakur bat galdu zaigu
izena du "Lagun"
beran bilaka nabil
ni gau eta egun
aztarrenikan ezin
atera det inun
ez dakit hura gabe
zer egingo degun

Bildurturikan egin
lezaken kalteaz
lotuta edukitzen
genuen kateaz.
Ahal zenik ondoena
sabela beteaz,
ez geunden asperturik
jaten emateaz

Mutur zabala, nabar
beso-hankak gorrik
isatsa kendua ta
moztuak belarrik
narruzko jantzi beltza
bi begiak argik
letaginak okerrak
ditu ezaugarrik

Zortzi egun baditu
etxetik galduta
honezkero jarri da
goseak ahulduta
beretzat jaso dunak
zarpatik helduta
mesedez ekartzala
jabea baduta



FERNANDO AMEZKETARRA



Fernando
Amezketarra

Hara hemen Fernando Amezketarren marrazki bizidunei hasiera ematen dien bertsoa. Ederki deskribatzen digu pertsonaia!

Buru ederra ez nekatzeko
pauso txikiko bi zango
halere inon festarik bada
ez naiz azkena izango
aurea hartu nahi badidazu
nekatuko zara frango
birigarrorik berritxuena
Amezketako Fernando



Doinua:

*Gure herriko bikariuak
Zortziko handia (10/8 silaba)*



ZORTZIKO TXIKIA ETA ZORTZIKO HANDIA

Txakurkume bati izeneko sorta zortziko txikian egina dago.

Fernando Amezketarrari buruzko bertsoa, berriz, zortziko handikoa da.

Txakur bat galdu zaigu
izena du "Lagun"
beran bilaka nabil
ni gau eta egun
aztarrenikan ezin
atera det inun
ez dakit hura gabe
zer egingo degun

Buru ederra ez nekatzeko
pauso txikiko bi zango
halere inon festarik bada
ez naiz azkena izango
aurea hartu nahi badidazu
nekatuko zara frango
birigarrorik berritxuena
Amezketako Fernando



Biak dira **zortzikoak**. Beraz...

Zenbat puntu dituzte bi bertsoek?

Zenbat oin dituzte bi bertsoek?

Eta zergatik ote du izena neurri honek **zortzikoa? zortzi zer** dituzte bi bertsoek?
zortzikoak 8 _____ ditu.



Baina bata **zortziko txikia** da, eta bestea **zortziko handia**.

- Zortziko txikiak zenbat silaba ditu puntu bakoitzean?

Txakur bat galdu zaigu
izena du **Lagun**

(_____ silaba)


(_____ silaba)

- Zortziko handiak zenbat silaba ditu puntu bakoitzean?

Buru ederra ez nekatzeko
pauso txikiko **bi zango**

(_____ silaba)

(_____ silaba)



NIRE BURUARI



Doinua:

.....

Geure txanda da: deskriba dezagun geure burua. Egiak eta erdi egiak esatea, libre!

1

.....

izena

.....

.....

onena

.....

2

.....

eskolan

.....

.....

nahiko lan

.....

EZ GAUDE KONFORME!

Bertsoen bidez, zerekin ez gauden ados adierazten dugu askotan. Zer aldatuko genukeen, gustura asko. "Normaltzat" edo "eguneroko ogitzat" dugun hori zalantzan jartzen dugu, begirada kritikoarekin.

Kritikazko bertsoak idatziko ditugu guk ere!

Baina, lehenik, kanta ditzagun ereduazko sorta batzuk, eta trebatu gaitezen *kopla txikian* eta *zortziko txikian*.

Ea, ba, zerekin ez gauden konforme...





Andoni Egaña
Makazaga

Jon Sarasua
Maritxalar



AI ZAPOTXIN



Doinua:

Ai Zapotxin

Kopla txikia (7/6 silaba)

Ez gara konforme egoten, askotan, gurasoekin eta irakasleekin.
Hara hemen, koplatan adierazita, zerk ernegatzen gaituen.
Koplek bukaerako oina falta dute: geuk igarriko diegu!

Ai zapotxin **ez dago zer egin** **guraso eta irakasleekin**

Ohetik jaiki behar
goizero-goizero,
berriro ohera nahi
pixa egin ta _____

Bazkaldu eta gero
berriro **klasera**,
amaitzeko ordua
helduko ote _____ ?

Aita ta amarekin
gero **afaria**,
janari ona baina
atzoko _____

Gosaldu eta bizkor
goaz **eskolara**,
idazmahaien gainean
lokartuko _____

Hainbeste irakasle
hainbeste **tutore**,
libre-libre utziko
bagintuzte _____

Afalostean pizten
dugu **telebista**,
nik nahiago topera
jarri compact _____

Jolastordua labur
ta klaseak **luze**,
horretan dugu mundu
aldrebesa _____

Eskola bukatuta
solfeo ta **inglesa**,
horiek baino hobe da
igandeko _____

Logalea heltzean
ohera **bagoaz**,
bi begiak itxita
hankak elkar _____

Bagoaz jantokira
bazkalordurako
ta beti jaten dugu
gutxi eta _____

Gauean eskolako
lanak **etxerako**,
nik denbora gehiago
nahi dut _____

Ohean etzan eta
egin dugu **amets**
aurtengo oporrak bihar
bertan hasi _____



Eñaut
Uruburu
Martinez



TXIKITIN PARIAN

Ez gaude
konforme!



Doinua:
Txikitin parian
Kopla txikia (7/6 silaba)

Baina irakasleak ere ez daude konforme!
Hara hemen, gure purrustadei erantzunaz, irakasleek jarritako koplak.

Ikasgelara sartu
ta hasten dut **lana**
kopla bidez azaldu *txikitin parian baina*
ai nahi **dizuedana**.

Txirrinak jo ta dator
ikasle **tropela**
motxilak arrastaka... *txikitin parian baina*
ai hau ordu **motela!**

Jesarri direnean
hurbildu zait **Miren:**
"larri nago ta utzi *txikitin parian baina*
ai komunera **joaten**".

Judith heldu da hoge
minutu **berandu**.
Mikelek ezkutuan *txikitin parian baina*
ai gaileta bat **jan du**.

Azaltzen nabilela
gaiko **teoria**
Hassanek ebaki du *txikitin parian baina*
ai atzamar **lodia**.

Arkatza zorroztera
altxatu da **Ibon,**
ea Martak horrela *txikitin parian baina*
ai begiratzan **dion**.

Teoria praktikan
lantzen hasi **gara**
ta aulkitik atzerantz *txikitin parian baina*
ai jausi da **Enara**.

Galdetu dudanean
dena ulertzen **den**
Olaiak ez du jakin *txikitin parian baina*
ai ze orritan **gauden**.

Arbelean idazten
hasi **naizenean**
hegazkin batek jo nau *txikitin parian baina*
ai ipurdi **gainean**.

Buelta eman dut eta
Jon Ander **urduri,**
eskuak mahaipean, *txikitin parian baina*
ai koaderno **zuri**.

Hauxe da panorama
goiz ta **arratsaldez**
gaur ere irtengo dut *txikitin parian baina*
ai hemendik **tatarrez**.

Bihar itzuliko naiz
ikasle **artera**
jolasten ikasteko *txikitin parian baina*
ai haiekin **batera**.



Jokin
Uranga
Isuskiza



EGUNERO SOKATIRAN



Doinua:

*Minberatu zaizkigu
Zortziko txikia (7/6 silaba)*

Koplak motz geratu zaizkigu gurasoei eta irakasleei esan nahi dizkiegun denak esateko...
Goazen neurri luzeagora: *zortziko txikian* jarraituko dugu!
Hirugarren puntuan, hutsuneak ageri dira. Ea asmatzen dugun alboko esaldia bi bertso-
lerrotan jartzen eta puntu bihurtzen.

Ahalegintzen dira
guri **erakusten**
nahiz guk behar duguna
ez duten **ikusten**

bertsotan hasi gara barruak **biluzten**

ea kantuan behintzat
entzuten **gaituzten**.

Goizean prest izaten
ditugu **arropak**
gaur ere ezin jantzi
nahi nituen **botak**

etxeko haserreak eskolako **notak**

ikasleak gara gu
ez gara **robotak**.

Matematikarekin
indartsu **darraigu**
Natur zientziak ere
bere ordua **zai du**

guztia gordetzeko ez garenez **gai gu**

hurrengo egunerako
dena ahazten **zaigu.**

Inoiz ezin jolastu
nahi dugun **horretan**
bost orduz eserita
aulki **gogorretan**

horrenbeste ikasgai hainbat **alorretan**

askoz hobeto bizi
gara **oporretan.**

Afalgaraian denok
ohi gara **elkartu**
jan nahi ez dugun hori
jatera **behartu**

lanak bukatu arte ez ohera **sartu**

etxean ere ezin
atsedenik **hartu.**

Guraso irakasle
guztiak **eredu**
inork erruki pixkat
izango **ote du**

sarri kokoteraino eginak **gaude gu**

baina guk ere asko
maite **zaituztegu.**



Etxahun Lekue Etxebarria



JANTOKIKO AZALOREA



Doinua:

Zortzi nobioak

Zortziko txikia (7/6 silaba)

Eta zer dio jantokiko azaloreak, bere aurrean agertzen dugun jarrerari buruz?

Aupa ikasle lagun,
naiz **azalorea**
barazki osasungarri
eta **dotorea**.
Nire mina eduki dut
barruan **gordea**,
gaur zuri kontatzeko
prest nago **ordea**.

Baserritarrak mimoz
hazia **soroan**.
Gero erremolkean
eskolara **eroan**.
Patatekin nahasia
lapiko **beroan**,
nire drama hasten da
ikasleen **ondoan**.

Platerean jarrita
sari entzun **dut nik**
"Buagh! Hau nazka..." oihuka
dioen **lagunik**.
Hori dionarentzat
badut **erantzunik**:
Probatu gabe ez esan
gustuko ez **nauzunik!**

Jantokira heltzean
hamaika **mespretxu**,
zeuk ere zenbat irain,
txantxa eta **kexu**
Begietatik jaten
ohituta **zaude zu**,
paketean banengo
jango **nindukezu**.

Badira ni dastatu
nauten lagun **batzuk**
eta denek diote
"Ba nik gustuko **dut!**"
Akaso hori egin
behar zenuke **zuk**.
Bihar bazkalorduan
itxarongo **dizut**.



TXIMU BATEN GOGOETA



Ez gaude
konforme!



Doinua:
Uso xuria errazu
Berezia (5 puntukoa)



Iturria:
Argia astekaria

Miren
Amuriza
Plaza

Animaliak ere ez daude oso pozik gizakiokin...
Hara hemen zoologikoan, kaiolan, bizi den tximu baten gogoeta.

Tximua naiz, **mendikoa**,
ia kaiolan **ittoa**,
agoantatu dut **nahikoa!**
Beraz, kantatu nahi dut barrutik
bizi ta **ikusirikoa**,
ez baita askoz txikiagoa
kanpoko **zoologikoa**. (bis)

Betaurrekoak, **bisera**,
mapa, motxila, **kamera**...
Zer espero **duzue** ba?
Nahiz gizakiok tximua ikusi
eta aho-zabal **gera**,
gure arteko diferentzia
hainbestekoa **ote da?** (bis)


Bakoitza bere **kulturan**,
eta dagokion **gudan**,
kontraesanekin **mugan**,
hor zabiltzate askatasuna
zeuontzako lortu **guran**,
baina niri inork ez dit galdetu
kaiolan bizi nahi **dudan**. (bis)

Askok **barroteetatik**
eskua sartu izan **dit**,
zer gura duten **badakit**...
Kosk egin eta zera galdetu
nahi izan dut **kumetatik**:
"Zuk laztanduko al zenuke inor
kakahuete **bategatik**?" (bis)

Kobak margotu **aurrena**,
gero asfaltoz bete **dena**,
han fabrikak, hemen **trena**...
Gaur egun hobe estimatuko
bazenute **ingurumena**,
harrotasunez zeuen burua
maite duzuen **laurdena**. (bis)

Pertsona tximutik **dator**,
baina zuontzat zorrak **zor**,
kaiolan gara **emankor**.
Historiaren pendulu handiak
aldaketa bat digu **zor**,
nork daki noizbait egongo ez garen
zuek hemen eta gu **hor**. (bis)

EZ GAUDE KONFORME!



Doinua:



Guk ere protesta edo kritika bertsoak jarriko ditugu.
Lehenik, adostu dezagun: zein gai azalarazi nahi dugu?
Eta zer pertsonaiaren ahotsetik hitz egingo dugu?
Nori zuzenduko gatzaizkio?
Adibidez, Natura izan gaitzezke. Zer dugu gizakiei esateko?


Sortaren egitura, bertsoz bertso

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

Bertso sorta

A series of horizontal grey brush strokes, resembling a writing template, arranged vertically down the page. Each stroke is slightly irregular and has a textured, hand-drawn appearance.

Ez gaude
konforme!



GABONETAKO ZORION MEZUA

Neguko solstizioa (edo urteko gaurik luzeena) ospatu egiten da kultura askotan, nor bere ohitura eta errituekin.

Kristauek Jesusen jaiotza ospatzen dute egun horretan.

Etxe askotara Olentzero ikazkina dator, suarekin sinbolizatuz eguzkiak irabaziko diola gauari.

Beste kultura askotan Gabonak ez dira ospatzen.

Urtea hasi ere, kultura askotan ez da urtarrilaren 1ean hasten, beste sasoi batean baizik.

Hitz egin dezagun:
zer ohitura ditugu gure etxeetan?





**Ane
Labaka
Mayoz**



ZEINENTZAT EGINAK?



Doinua:

Gaueko Entziklopedia Koxkorra
Zortziko txikia (7/6 silaba)

Gabonetan, jostailuen iragarkiz betetzen zaigu telebista eta etxeko postontzia. Baina neskei eta mutilei uzten al digute nahi dugunarekin jolasteko aukera?

1. Propagandak egiten gaitu ezberdinak Gabonetan markatzen dira bi erpinak; jostailu arros eta jostailu urdinak... Argi dago zein diren zeinentzat eginak.

2. Baloi bat desio du **Ane** pinpirinak, kotxe telegidatu, barku, hegazkinak, ezpata luze eta piraten ipuinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

3. **Anerrek** nahi lituzke laguntzat panpinak, edabeak egiten dituzten sorginak, soinekodun printsesa edo erreginak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

4. **Jone**ren obsesio pieza arinak legoekin osatu nahian eraikinak, grua altuak eta hondeamakinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

5. **Jonen** gustoko dira sukalde izkinak, trapu batez garbitzen ditu zipriztinak plastikozko lapiko eta zartaginak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

6. **Julek** belaunburuak nahi ditu zikinak, Supermanen marrazki bat duten patinak jantzita jaitsi ditzan aldapa haundinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

7. **Julenek** pintatu nahi ditu ezpain finak, probatu makillaje hautsak ta lurrinak, pultsera forma hartu ohi duten buztinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

8. Funtsean ez garenez horren ezberdinak morez zirriborratu ditzagun erpinak baloi arrosak eta panpina urdinak... Behingoz izan daitezen denontzat eginak.



OINEN BITXILOREA

Sortaren egitura



Ane Labakaren bertso sortan, **azpimarratu** ditzagun bertso bakoitzean azken puntua eta oinak. Zer ikusten duzue? Zer-nolako egitura eman dio Anek sortari? Zergatik egin ote du?




Oinen bitxilorea

Sortan agertzen diren oinekin, BITXILOREA osatuko dugu:

Erdian jarriko ditugu edozein gairentzat egoki etor daitezkeen oinak.

Hostoetan, multzoka jarriko ditugu oinak, eta elkarrekin lotura duten hitzak bilduko ditugu hosto bakoitzean. Zuek ikusi multzoak zeren arabera egin!





Uxue
Alberdi
Estibariz



JOSTAILUAK EZ DAUDE KRISIAN



Doinua:
ETAren su-etenetik
Berezia (7 puntukoa)

Maitasuna adierazteko, opariak erostera bultzatzen gaitu gure gizarteak.
Baina bizitzako gauzarik onenak ezin dira diruz erosi!

Herria: Altsasu / Urtea: 2012-12-22 / Gaia: Jostailuen sektorea ez omen dago krisian

Olentzero etortzen da urtero-urtero grazian eta umeak ez daude jostailuen eskasian ilusioa badute hain urtaro berezian batzuentzat nahiz-ta egon umeak gaizki hezian azken boladan gabiltza zerbait ezin ikasian estresauta bizi gara erritmo bizi-bizian ta jostailuak igual ez, jolasa dago krisian.

Nola kontsumoa denok beti behar dugun gurtu jolasak erostearen ohitura ezin agurtu nahiz eta behin erabili, aspertu eta apurtu nahiz eta haien denbora *Play Station*etan urtu gure burua behar dugu kritikatu ta egurtu haurrekin egiten denak sarritan ohi nau beldurtu jostailuak eman eta irudimena lapurtu.

Baina *El Corte Ingles*erantz mugitzen bada haizea etxeko aurrekontuan nola sartu guraizea ohitura da zuhaizpean zapatillak ipintzea ta ia obligazio amets denak kunplitzea ez al da gauza erraza lehen bezala bizitzea gure aldetikan hemen zeozertxo ipintzea ta gure seme-alabei denbora oparitzea



OIN ZORROTZAK

Konturatu al zarete?



Uxue Alberdik bat-batean kantatu zituen 3 bertso hauek, eta zazpi puntuko neurrian. Hirugarren bertsoan, zer gertatu da hirugarren eta seigarren puntuan?




Oin zorrotzen bitxilorea

Hiru bertso horietan, oin batzuk hoskidetasun handia dute: oin zorrotzak dira.

Oin zorrotzen BITXILOREA osatuko dugu:

Erdian errima ageri zaigu.

Hostoetan oin zorrotzak multzokatuko ditugu; hau da, euren artean hoskidetasun handiena duten oinak hosto berean jarriko ditugu.





**Jokin
Sorozabal
Ansa**



OLENTZERO BUSINESS CENTER



**Musika
Mikel Markez**



Doinua:
Olentzero Business Center
Zortziko handia (10/8 silaba)

Gure herriko ipuin zaharrek eman zioten dotea
Eguberria iragartzeko tripa haundi arlotea
makilajea egin diogu operazio fuertea
kondaira aski mehetua dakar baina zakua bete.

Eguberria ta kontsumoa uztartu dira elkarri
telebistako haurren ordutan konturatzen gara sarri,
Olentzerori esan diote gure enpresara etorri
Eguberria guk saltzen dugu ta zuk aurpegia jarri.

Gaztainak, sua ta ardagaia sutondoan atzenduta
Eguberrien sinbologia horra eguneratuta
koloretako kaja txiki bat zinta batean bilduta
berri onaren mezularia "zorionak" jartzen du ta.

Publizitatez gainezka jarriz haurraren gogoia bete
amona, osaba, izeba, ama dendako eskaparate,
denen artean biltzen ditugu dozena terdi pakete
oparirikan ez dakarrenak haurrik ez ote du maite.

Olentzeroren bisita ez da haur guztien ondasuna
askok eskulan oso merkean xahutzen dute eguna,
munduko beste puntan daukazu jostailugile laguna
beste haur batek egingo zuen zuk apurtuko duzuna.

Gauzak kostata sortzen direla ikasiz nahi ditut hezi
lortzea asko kosta izanak egiten ditu berezi,
zerutik behera oraindik ez da elurra besterik jauzi
baina ezin da eskatu eta ezin da dendan erosi.



OLENTZERORI



**Julio
Soto
Ezkurdia**



Doinua:

*Lurraren pean sar nindaiteke
Hamarreko handia (10/8 silaba)*



Iturria:
Argia astekaria

Kaixo Olentzero, Etiopian
guztia da hauts, bero, ke...
ni ongi nago, baina anaiak
badauka zerbait, zer ote?
Azken aldian irribarreek
ihes egiten diote,
sabela hazi-hazita dauka,
azal hoztu, eztul kolpe...
Sendagairen bat baldin bazenu
pozik emango nioke.

Kaixo Olentzero, Rio Janeiron
fabela bueltan beti gu,
hamalau gazte gara, futbola
odolean dakarkigu,
guk baino behar gehiago duten
haurrak daude, badakigu,
baina baloi bat sobran bazenu
mesede egingo digu,
duela hiru urte ekarri
zeniguna hautsi zaigu.

Kaixo Olentzero, zer moduz zaude?
Tori bi muxu, bi patxo,
Bengasin bizi naiz, azkeneko
leherketa handia atzo,
hamahiru urte dauzkat, badakit,
gauzak eskatzeko zahartxo
baina ez bada zuretzat kezka
ez buruhauste lartxo
jakin nahi nuke non ote dauden
nire aitatxo eta amatxo.

Kaixo Olentzero, Indian bizi naiz
hamaika urteko lora,
egun guztia pasa behar dut
jostorratza, beheara, gora.
Hari finena zapatilentzat
lodiagoz, alkandora.
(Gure arteko sekretua da:
ez dut egiten gustora)
Bakar-bakarrik eskatzen dizut
jolaserako denbora.

Kaixo Olentzero, Euskal Herritik
aurten eskari erreza:
nahi dut Messiren trajea eta
espinilletan babesa,
eta baloi bat (hau ez galtzeko
egiten dizut promesa),
Bob esponja bat, eta wifia
eduki ahal baneza.
A, eta bueno, gero beste bat
baina hori ja sorpresa.

Abenduaren hogeita laua
iluntze magiko, bero,
kaleak argi gorritz, laranjaz,
dotoreak dira gero...
Zoriontsu den familia bat,
segiko ote du gero?
Guztia oso polita baina,
Eguberriro, urtero,
gutxien behar den etxeetatik
pasatzen da Olentzero.



MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

Nola irudikatzen ditugu?



Olentzero gizon tripaundi, mozkor, zabar gisa irudikatu izan da, eta bera dugu Gabonetako pertsonaia nagusia.



Mari Domingi emazte eta neskame plantan irudikatu izan da, bigarren mailako pertsonaiatzat (Olentzeroren *laguntzaile* gisa).



Emakumeen eta gizonen arteko rol banaketa nolakoa den garbi ikusten da bi pertsonaia horietan.

Eta zergatik ez izan emakume bat Gabonetako pertsonaia nagusia?

Eta zergatik ez Mari Domingi tripaundi, mozkor eta zabar bat?



MARI DOMINGI



Amaia
Agirre
Arrastoa



Doinua:

Nik zonbat pertsu alde

Sei puntuko txikia (7/6 silaba)

Nor den Mari Domingi
galdezka hastea
gelan izan daiteke
bazterrak nahastea;
zer da amona xaharra,
heldua, gaztea?
Edota Olentzerok
duen emaztea?
Hauxe da etiketak
soinean janzte...
Oro gainetik izan
dadila askea!

Duela lau mendeko
janzkera zabala:
orkatiletaraino
doan amantala,
unikornio gisa
zapia daukala,
guztia estalita
mami ta azala...
Baina zure baitan ez
bazen sortu hala,
irudika ezazu
nahi duzun bezala.

Iraultzaile nekagaitz
edo alfer nagi,
lagunen lagun edo
mihi salatari,
oinezko eskeleto
edo tripa handi...
Aintzat hartuko ditu
mimo ta eskari
bertso postal bat egin
zaiozu opari
ta utzi hegan egiten
irudimenari.

Mari Domingiren erretratua



Irudika ezazu Mari Domingi zuk nahi duzun bezala.
Nolakoa izatea nahiko zenuke Gabonetako pertsonaia nagusia?




GABONETAKO ZORION MEZUA

Gabonetan senideei, lagunei emateko mezua prestatuko al dugu, bertsoan? Gero, nahi duenak postal eder bat sortu dezake, eta bertsoa bertan idatzi. Edo abestuz grabatu eta mugikorretik zabaldu liteke. Hara hemen Gabonetan bolo-bolo zabaldu izan den zoriontzeko bertso bat!




Doinua:
Habanera
Berezia (8 puntukoa)



Oharkabeen badatoz
abenduko azken egunak,
eta gogoan ditugu
urteak eman ditunak.
Asko ta asko izan dira
aurtengo gertakizunak,
batzuetan gauza alaiak
eta besteetan ilunak.
Baina albora ditzagun
betiko karga astunak,
ta etxekoekin batera
gozatu ospakizunak
lekua har dezatela
bake eta maitasunak.
Besarkada bat bihotzez,
urte berri on lagunak!





ZORIONTZEKO BERTSOA



Doinua:

.....

OINAK


- LAGUNA
- TXUKUNA
- EZAGUNA
- TXAPELDUNA
- EGUNA
- ILUNA
- BILDUMA
- ERRESUMA
- DUGUNA
- ...

EA KUNPLITZEN ZAIZUN
 AMESTEN **DUZUNA**

OINAK

- DENETAN
- BERTAN
- BENETAN
- HIZKETAN
- JOLASETAN
- HORRETAN
- ZERTAN
- BIZIKLETAN
- ...

ONDO PASA EZAZU
 OPOR **EGUNETAN**





SORTU DEZAGUN GURE POSTALA

Postal polit bat sortuko dugu, gero zoriontzeko bertsoa bertan idazteko.
Nahi baduzu hemengo irudiak erabili zenitzake.



NEGUKO ESKEA

Neguko Eskean aterako gara koplari: eskolan gelaz gela, edo herrian kalez kale, ala baserriz baserri bestela...

Eskeko kopla doinuak ikasiko ditugu. Neurritz *kopla handia* dira. Eta eskean goazela, geldialdi bakoitzean 4 kopla mota kantatu ohi direla jabetuko gara.

Gero gure koplak asmatu eta... ea umorea jartzen dugun herrian!





**Aitor
Mendiluze
Gonzalez**



NEGUKO ESKEA



Doinua:
Bonbolontena nere laztana l
Kopla handia (2 puntukoa)



Doinua:
Han goien goien izarra
Kopla (3 puntukoa)

Dios te salve ongi etorri
Gabon Jainkuak diela
legearekin kunpli dezagun
Santa Ageda bezpera

Santa Ageda Ageda
bihar da Santa Ageda
bihar da Santa Ageda eta
gaur haren bezpera gaua

Hasierako agur formalak

2 puntukoa

Kopla kantari atera gara
Santa Ageda bezperan
makilarekin lurra esnatuz
pasako dugu primeran

3 puntukoa

Urtero gaurko egunez
festa ederra dugunez
kantari gatoz gure koplekin
ohiturari erantzunez.

Zirikazkoa

2 puntukoa

Etxe honetan norbait badago
herriko langileena
berak sekula egin ez arren
denei agintzen diena.

3 puntukoa

Esaten dute hau dena
herriko etxe onena
ikusiko da egia al den
zuei buruz diotena.

Eskekoa

2 puntukoa

Zuen etxeak beti izan du
txorizo onaren fama
eta atera etxeoandreak
ate atzean daukana.

3 puntukoa

Irakasleari tope
eskatu nahi genioke
hamarrekorik ez dugu behar
zortzia ondo legoke.

Bukaerako agur formalak

2 puntukoa

Eskerrik asko etxeko denei
gustura egon gara gu
sobratu zaigun txokolatea
biderako daramagu.

3 puntukoa

Bagoaz berriz aparte
ohitura zaharra bitarte
eskerrik asko guztiagatik
eta hurrengora arte.



ESKEKO KOPLAK

Eskean goazela 4 kopla mota kantatu ohi ditugu

Hasierako agur formala. Gizalegez kaixo esan eta zer ospatzen ari garen gogora ekarriz.

Zirikazkoa. Aurrean dugun protagonistari buruzko kopla. Umorez, baina neurrian zirikatuz. Helburua berak ere barre egitea da!

Eskekoa. Zerbait eman dezan xaxatuz (gailetak, intxaurrak, xoxak...).

Bukaerako agur formala. Eskerrak emanaz, festa egunak ondo pasatzeko desioz, edo hurrengora arte agurtuz.





HARA HEMEN EREDU GEHIAGO!



Doinua:

Bonbolontena nere laztana I

Kopla handia (2 puntukoa)



Doinua:

Han goien goien izarra

Kopla (3 puntukoa)

Hasierako agur formala

2 puntukoa

Kaixo lagunak kantari goaz
ate batetik **bestera**
hontara ere etorri gara
kantura eta **eskera**.

Santa Ageda bezpera da-ta
bagatoz kopla **kantari**
makilak joaz esna dadila
eskatuz gure **lurrari**.

3 puntukoa

lepa lagunak bagatoz
denak jarri gara **ados**
gaurko eguna koplak kantatuz
ondo pasatzeko **asmoz**.

Kaixo zer moduz kuadrila
bagatoz koplari **pila**
kantua zuei eskaini eta
zuen irriaren **bila**.

Zirikazkoa

2 puntukoa

Herrian zehar kopla kantari
heldu gara **farmazira**
Gure etxeko aiton-amonak
zuei esker bizi **dira**.

Goxoki denda hontan sartzeko
egoten gara **irrikak**
herriko umeek hemen ikasten
ditugu **matematikak**.

3 puntukoa

Gaude udaltzain etxean
galdezka nator, **letxean**
zuetan zeinek jartzen du multa
beti amaren **kotxean?**

Marikarmen pelukera
zugana etorri **gera**
gure koplarik txorrotxenekin
ileak puntan **jartzera**.

Eskekoa

2 puntukoa

laz probatu genuen eta
zer nolako **arrakasta**
aurten osorik jan nahi genuke
etxe honetako **gazta**.

Urdaiazpiko edo sagardo
txanpona edo **papera**
nahi duzuen botata poltsara
erraz konformatzen **gera**.

3 puntukoa

Hemen da gure kuadrila
bere limosnaren **bila**
eskuzabalak omen zarete
orain ikusi **dadila**.

Guk ezer baino gehiago
askari on bat **nahiago**
ogi gogorra onartzen dugu
barruan zer bait **badago**.

Bukaerako agur formalak

2 puntukoa


Eskerrik asko limosnagatik
eta **harrerarengatik**
bide osoak merezi zuen
hona **etortzeagatik**.

Eskerrak eman eta bagoaz
zuen etxetik **aparte**
osasunez ta umorez segi
agur, hurrengora **arte**.

3 puntukoa

Etxekoei mila esker
ezin esan beste **ezer**
berriz biltzeko beste urte bat
igaro dadila **laster**.

Agur, bagoaz bidean
hotsak zabalduz **airean**
hurrena ere bil gaitzela
aurtengo giro **berean**.



ESKEKO KOPLAK



Doinua:
Bonbolontena nere laztana I
Kopla handia (2 puntukoa)



Doinua:
Han goien goien izarra
Kopla (3 puntukoa)

Erabaki dezagun bakoitzak zein tokitan abestuko duen, eta zer motatako kopla egitea dagokion: hasierako agur formal, zirrikazkoa, eskekoa ala bukaerako agur formal. Eta gogoratu: zirikatzea ere ondo dago... baina bere NEURRIAN!

Tokia: _____

Hasierako agur formal

Four horizontal grey brushstroke lines for writing.

Tokia: _____

Eskekoa

Four horizontal grey brushstroke lines for writing.

Tokia: _____

Zirikazkoa

Four horizontal grey brushstroke lines for writing.

Tokia: _____

Bukaerako agur formal

Four horizontal grey brushstroke lines for writing.

GUK EUSKARAZ

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Eguna. Beste data batzuetan, literatura asteak edo kultura asteak antolatu ohi dira hainbat ikastetxetan.

Korrika ere etortzen da gure herrira bi urtez behin.

Emanalditxo bat prestatuko dugu gure ikastetxean eskaintzeko.

Horretarako, hizkuntzari buruz jarritako bertsoekin gozatuko dugu lehenik, eta erimari erreparatuko diogu.

Has gaitezen kantari!





**Xabier
Paya
Ruiz**



AMARI GALDEZKA



Doinua:
Esnesaltzailearena
Hamarreko txikia (7/6 silaba)

Ama, ni zergatik naiz
bi hizkuntza lasai
hitz egiteko gai?

Elebidun egin nahi
baitzintudan, Unai,
munduan ibiltzeko
kontent eta alai
gazelaniaz eta
euskaraz ere bai...
Zuretzako onena
baino ez nuen nahi.

Ama, lar ez ote da
bi jakin beharra?

Aski da bakarra!

Unai, bihur ezazu
hizkuntza txamarra:
Saihesteko elurra
edo kazkabarra,
bakar bat ez ote da
aukera kaskarra?
Hobe hartzea xira
ta forro polarra.

Ama, ez dut euskaraz
egiten tarteka
kostatzen zait eta!

Pentsa hizkuntza dela
zure bizikleta:
Astero eman ezik
dozena bat buelta,
gero ta urrunago
izango du meta,
herdoildu egiten baita
ganbaran gordeta.

Guztiok bi hizkuntzak
ikasi ezean

gu bion antzean?

Biak dakizkigunok
geronen etxean
ez dugu aukerarik
izango hitzean
eta hasiko gara
erdara hutsean
aurrekoaren lehen
hitza aditzean.



GAIARI LOTUTAKO OINAK



Goazen bigarren bertsora: [hizkuntza txamarrarekin konparatzen du](#) Xabier Payak. Ideia hori indartzeko, txamarrarekin lotutako oinak erabiltzen ditu bertsoan. Ikus dezagun ea hala den!


Tximeletaren hego batean multzokatuko ditugu [txamarrarekin](#) edo eguraldi petralarekin zerikusia duten oinak.

Beste hegoan, eguraldiarekin zerikusirik ez duten oinak.



Hirugarren bertsoan [hizkuntza bizikletarekin konparatzen du](#).

Ideia hori indartzeko, bizikletarekin lotutako oinak erabiltzen ditu bertsoan. Ikus dezagun ea hala den!





Jon
Maia
Soria



SUSTRAIEI AGURRA



Doinua:
Gaztalondo handian
Berezia (9 puntukoa)

Gutako askoren senideak beste herri batean jαιοak dira, edo beste hizkuntza batean mintzo dira. Hara Jon Maia Soriak zer agur eskaini zien bere senideei.

Saioa: Txapelketa Nagusia / Urtea: 1997 / Bukaerako agurra

Ama Extremadura,
aita Zamoratik,
abueta ta abuelo
haien aurretik;
herri hontan sustraitzen
asmatzeagatik,
neuk'e maita dezaket
guztien gaintik.
Euskeraz badakit,
bertsoz darabilkit,
dena zuengatik,
halaxe dagokit,
denek kantatu dute
nere ahotik.

Bertso neurririk luzeena: 9 puntukoa



Azpimarratu bertso honetako oinak: ea denak aurkitzen dituzun!

*Pista bat: 9 puntuko bertsoa da. Beraz, zenbat oin aurkitu beharko dituzu?

Zer eskertu nahi zien?



Txapelketako agurra baliatu nahi izan zuen Jonek bere senideei zerbait eskertzeko. Zer eskertu nahi zien? Azpimarratu bertsoan!



ABUELA MARIA LUISA



Taldea
Pirritx eta Porrotx



Doinua:
Abuela Maria Luisa
Kopla (3 puntukoa)

Amonari kantu hau ere eskaini zion Jonek.

Geranioa loretan dela, (Bis)
ikastolatik banatorrela
leihoan zain daukat abuela.

Hain da luzia Andaluzia,
han da hizketa berezia,
hangoa du bere grazia!

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Herritik urrun, bihotzak pena, (Bis)
gaztea zinen, guapa, morena,
hartu zenuenean trena.

Triste heldu arren Euskal Herrira,
zure begiak piztu dira
gure mendiei begira.

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Irriak diz-diz ezpain ertzean, (Bis)
iloba denok zure etxean
zuri euskaraz kantatzean!

Nahiz ta hizkuntza ez den berdina,
aspaldi duzu lagun mina
gure amona Joxefina.

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Zure zartagin eta lapiko, (Bis)
zure lur eta zure herriko
usain ta zapore magiko.

Kontu kantari sillan jarrita,
gure etxeko lore polita,
maite zaitugu abuelita!

Eta etorri zenetik maite du gure trikitixa,
Andaluzia eta olibondoan geriza,
Abuela Maria Luisa!

Oinak hautatu egiten dira

Kantua Maria Luisari eskainita dago. Eta azken estrofan, hiru oin hauek hautatu ditu bertsolariak:

Eta etorri zenetik maite du gure **trikitixa**,
Andaluzia eta **olibondoan geriza**,
Abuela Maria Luisa!



Zergatik, justu, hitz horiek? Zer mezu eman nahi digu?



Josu
Landeta
Egurrola



HIZKUNTZEN PATIOA



Doinua:

Txakur txiki polit bat
Zortziko txikia (7/6 silaba)

Eskolan asko gara beste herri batetik etorriak. Aniztasuna, gure aberastasuna!
Egin dezagun zerrenda: zenbat hizkuntza dakizkigu eskolako lagun, guraso eta irakasle guztion artean?



Josu Landetak sorta hau eskaini die eskolan elkartzen diren hizkuntzei.
Bertsoei oinak falta zaizkie. Ea puntu bakoitzean oin egokia hautatzen dugun!

Maroko, Errumania
Peru, Kolonbia,
Paraguai, Errusia,
Txina, _____
Urrundik etorrita
lagun sorta _____
elkarrekin gabiltza
egiten _____

Oinak:
handia habia Bolivia

Hegan doan txoria
egin da pausatu,
herri honetan etxea
behar dugu _____
Eskolan gabiltzanok
ez gara lau _____
batera jolasteak
pozik jartzen _____

Oinak:
gaitu katu altxatu

Gorri, berde, hori eta
urdinen lilura,
jauzi alaietan goaz
margoen _____
Begira inguruan
daukagun _____
patio bakarrean
hamaika _____

Oinak:
kultura mundura freskura

Diz-diz ageri dira
gauean izarrak,
errumaniera eta
txineraren _____
arabieraz datoz
uhinen _____
ez ditzala estali
hizkuntza _____

Oinak:
bakarrak garrak aparrak

Hitza eta ekintza
bizitzaren zuku,
eguzkiak izotza
noiz behar du _____ ?
Euskaraz badakizu
ez ibili _____
bertoko hizkuntza ere
lagun min _____

Oinak:
bihurtu urtu mutu

Nagusiak lanean
umeak jolasten,
maldan gora gabiltza
lur honetan _____
Gogoz ibiliz gero
elkar _____
laster hasiko gara
gailurra _____ !

Oinak:
ikusten hezten aberasten



NIRE HERRIAN



Doinua:
"El dolor de los dolores"
Kopla berdina (8/8 silaba)



Aitor
Arrutia
Azkueta

Idoia
Anzorandia
Kareaga

Herri batzuetan gutxi gara euskaraz hitz egiten dugunak kalean, eta *xomorro-berde* sentitzen gara askotan! Inoiz gertatu al zaizkizu kopla hauetan kontatzen diren bezalako egoerak?

Euskara daukat ahoan niretzat da hain **normala**, baina begiratzen naute estralurtarrei **bezala!**

Amak eskolan esan dit: "ondo pasatu **laztana!**"
Ta kolegek flipatuta: "Habla euskera tu **ama???**"

Pentsatzen dute euskara aprobatuko **dudala**, baina ez dut ezer ikasi gainontzekoek **bezala.**

Nahiz ta ez izan oso ona berez egiten **bertsoak**, klasean kriston pelota dit **bertsolaritzakoak.**

Okindegian "barra bat" eskatu ta "no te **entiendo**" batzuek ez ulertzeko enpeñatzen dira **sendo.**


Ta ogia ezin izan dudanez euskaraz **hartu**, goxoki dendan euskaraz eskatzen ez naiz **ausartu.**

Dendariak antzeman dit: "Ez al dakizu **euskara?**"
Sorpresa hau gozokiak baino **gozoagoa da!**

Batzutan pentsatu arren ez daukadala **indarrik** holakotan sentitzen dut ez nagoela **bakarrik!**

Gure herrian euskaldun garenez hainbeste **lagun**, ilusioak batu ta piña bat egin **dezagun!**

GUK EUSKARAZ



Doinua:



Egin dezagun eskolako ekitaldirako gure sorta.
Lehenik, pentsa dezagun sortaren egitura. Zer-nolako mezuak eman nahi ditugu?

Sortaren egitura, bertsoz bertso

1 _____

2 _____

3 _____

4 _____


5 _____


6 _____

7 _____

8 _____

Bertso sorta





IPUINAK BERTSOTAN

Ipuinak ahoz transmititzen ziren belaunaldiz belaunaldi; horregatik, ipuin asko galdu egin dira. Une batean norbaitek idatziz jasotzea erabaki zuelako ezagutu ahal izan ditugu haietako batzuk.

Ziur zuek ere badakizkizuela ipuin mordoa!

Hauxe izango da gure lana: ipuinaren egitura aztertu eta ipuin bat bertsotan kontatzea.

Gero, antzeztu eta grabatu ere egin genezake: haur hezkuntzako gelan, gurasoen aurrean, edo gure ikasgelan...

Denak prest?
Has gaitezen, bada.





**Leire
Ostolaza
Arrillaga**



TXANOGORRITXO



Doinua:

Nagusi jauna hauxe da lana
Zazpi puntuko berezia (3 errima ezberdin)

- 1 Narratzaileak**
Ba omen zen behin neska txiki bat,
zeinen alaia zen gogoan daukat:
nahiz jolasten zekien ederki,
handiagoen lanak nahi beti.
Hau zoriona,
begitxoetatik zeriona,
entzunda amak esan ziona:
- 2 Amak**
Aizu, alaba Txanogorritxo,
tori ezta ta hiru opiltxo,
gaixorik dago amona xaharra,
badauka bilobaren beharra,
zoaz, mugitu!
Loretxoak biltzen ez gelditu,
bestela otsoak jango baitzaitu.
- 3 Txanogorritxok**
Ama banoa ta gero arte
Amak
azkar joan ta kontuz ibil zaite;
amona han izango duzu zai,
goseak ez da egongo lasai.
Tori bi musu,
opiltxoak hartu al dituzu?
Amona ondo zaindu ezazu.
- 4 Txanogorritxok**
Tralatralarai, tralatralarai,
amonarengana nijoa alai,
hartu ditut nire loretxoak,
eta salto egin dit otsoak.
Susto itzela...
utzi nauzu harria bezela,
zergatik irten zara horrela?
- 5 Otsoak**
Ume polita, hau da zortea,
biok baso honetan egotea;
nora zoaz otarra horrekin?
mesedez, joan nahi dut zurekin;
bi bide daude
eta, nirekin ados bazaude,
egin apustu motzaren alde.
- 6 Otsoak**
Amonatxoa, jada heldu naiz,
zugana beti iristen naiz garaiz:
azkar zabaldu zazu atea,
nahi nuke askaria jatea,
Amonak
Sartu, biloba,
zu ikusteko zenbat denbora,
zatoz, polita, nire ondora.

- 7 **Otsoak**
Nire askari zu zara eta
zu jateko hartu nahi nuke beta...
amona zein goxoa dagoen...
mozorro nadin ahal den ondoen...
Txanogorritxok
Kaixo, amona,
aurrenengo iritsi naiz hona
ta dakarkizut askari ona.
- 8 **Txanogorritxok**
Ene, amona, harritzekoa!
Sudurra duzu otso antzekoa,
ta belarriak oso handiak,
amona batentzat gehiegiak,
eta ahoa:
bestetan baino handiagoa...
Zuk bai duzula gaitz arraroa.
- 9 **Otsoak**
Sudurra daukat zu usaintzeko
eta belarriak zuri entzuteko,
ahoa duzu hurrengo kezka,
mesedez, ez zaitetz joan iheska,
jango zaitut nik...
Amona tripan daukat jadanik
eta goseak nago oraindik.
- 10 **Txanogorritxok**
Ama, lagundu! Ama, lagundu!
Otso gaizto honek amona jan du!
Norbait etor dadila, mesedez,
edozer emango nuke ordezt!
Ehiztariek
Zu egon lasai,
bagara amona salbatzeko gai
eta otsoa hiltzeko ere bai.
- 11 **Narratzaileak**
Biak salbatu ondorenean
ito zuten erreka barrenean,
eta denak jarri ziren pozik,
guztiak gure otsoa ezik.
Hola izan zan,
eta sartu ziren kalabazan
ta irten Azpeitin, berdura plazan.

IPUINARI HASIERA ETA BUKAERA EMATEKO MOLDEAK



Hauxe izaten da **ipuinari hasiera** emateko modua: pertsonaia nagusia aurkeztea. Horretarako, esaldi edo molde jakinak erabili ohi dira:

“bazen behin”, “behin batean”, “duela urte asko...”

Azpimarratu dezagun zer molde erabili den bertso ipuin hau hasteko eta pertsonaia nagusia aurkezteko.



Ipuinari amaiera emateko ere badugu molde ezagun bat euskaraz.

Azpimarratu dezagun bertso ipuin honetan bukaerari dagokion atala.



Ixiar
Eizagirre
Kerejeta



HIRU TXERRITXOAK



Doinua:

Nagusi jauna hauxe da lana
Zazpi puntuko berezia (3 errima ezberdin)

- 1 Narratzaileak**
Ba omen ziren behin hiru txerritxo
bi alfer eta bat langile txintxo
horra ama, hizketan ari da
bere hiru kumeei begira
Amak
Hazi zarete
etxea egiteko astebete
duzue, ta hasi lanean fuerte!
- 2 Txikiak**
Nik egingo dut etxea lastoz
gutxi nekatzeko hobe da askoz!
Ertainak
azkar egin dut egurrarekin
arpa jotzera zatoz nirekin!
Nagusiak
alfer alenak!
harrizkoak dira etxe onenak
ta laguntzera etorri denak
- 3 Narratzaileak**
Hiru txerriak hor ari dira
bakarra lanean ta bi begira
Kontuz! hementxe dator otsoa
korri! ondo itxi etxetxea.
Otsoak
txerritxuleta
usain ederra daukagu eta
hasi behar dut ate kolpeka
- 4 Otsoak**
Zer dugu hemen? Lastozko etxea...
gutxi kosta behar zait botatzea!
Narratzaileak
otsoak egin du putz eta putz
etxea erori da ta kontuz!
Txikiak
Anai maitea
ireki zure etxeko atea
Ertainak
zatoz barrura, mugi zaitea!
- 5 Narratzaileak**
Bigarrena da zurezko etxea...
Otsoak
gutxi kosta behar zait botatzea!
Narratzaileak
Ostikoz jo du, dena puskatuz
etxea erori da ta kontuz!
Txikiak eta ertainak
Anai maitea
ireki zure etxeko atea
Nagusiak
zatoz barrura, mugi zaitea!

6 Narratzaileak

Harrizko etxea ostikoz jota...

Otsoak

ai, ai, ai! Ze mina hormaren kontra!

Hiru txerritxoak

otso zorritsu, zoaz basora

txanogorritxu han egongo da

Otsoak

A bai, badakit!

harriak badu zuloa goitik

sartu behar dut tximiniatik!

7 Narratzaileak

Zasta! sutara jausi da eta

ipurdiko ile denak erreta

aldegin du betiko, orroan

hiru txerriak dantzan korroan

Hiru txerritxoak

tralara-lara

gaurtik aurrera festa ta algara,

lana eginez biziko gara



IPUINAREN BUKAERAN IRAKASPENA



Ipuinen helburua irakaspen bat ematea ere bada.

Ipuinaren bukaeran, entzuleak ondorio argi bat atera behar du.

Zein da *Hiru txerritxoak* ipuinak hurrei eman nahi dien irakaspena?

Azpimarratu dezagun bertso ipuin honetan irakaspenaren atala.



Joxema
Leitza
Razkin



ZUHAITZAK ETA AIZKORA



Doinua:

Txoriak eta txoriburuak
Zortziko handia (10/8 silaba)

- 1 Behin gizon batek, basoan zela,
kezka bat zuen gordea
aizkora zuen bere ondoan
kirtenik gabe ordea!
Zuhaitzei egin zien erregu:
*"ez dut galdu nahi kordea
beste kirten bat behar dut laster,
lehengoa baino hobea!"*
- 2 Zuhaitz guztiek batzarra eginda
haxe zuten erabaki:
*"Makil zuzen bat ken diezaiogun
gorostiondo lerdan bati".*
Gizona, esku artean kirten
berriarekin izaki,
laster hasi zen, tipi ta tapa,
hemen moztu, hor ebaki.
- 3 Lehenik aritza, gero pagoa,
eta lizarra hurrena,
honi adarra, horri enborra,
hangoari ia dena...
Hau ikusirik elorri batek
haxe da esan zuena:
*"Zoritxarreko, bere etsaia
laguntzen aritzen dena".*



IPUINAREN SARRERA, KORAPILOA ETA BUKAERA



Ipuinek 3 atal nagusi izan ohi dituzte: sarrera, korapiloa eta amaiera (edo konponbidea).
Biribildu dituzgun hiru atal nagusiak *Zuhaitzak eta aizkora* ipuinean.

Ipuinaren bukaeran, mezua dator: entzuleak ondorio argi bat atera behar du.
Azpmarratu dezagun bertso ipuin honetan irakaspenaren atala.

ETA HALA EZ BAZAN?

Esan dugu ipuinen funtzioa irakaspen bat ematea ere badela:
"Okerrik ez gertatzeko, horrela jokatu behar duzu".

Baina garaiak aldatu egiten dira, eta gaur agian ez gatoz bat ipuin klasikoek eman nahi dizkiguten mezuekin. Edo, agian, pertsonaia nagusiek jokatzen dituzten rolak ez ditugu guretzat nahi.

Ipuinak aldatu egin ditzakegu: beste bukaera bat asmatuz, edo pertsonaiei jokabide berriak emanez. Ipuinak bere helburua bete dezan berriz ere:
irakaspen bat ematea, guri, gaur.

Ikus ditzagun ereduak!





**Joseba
Santxo
Uriarte**



TXANOGORRITXOREN BERTSIO GANBERROA



Jatorrizko hitzak:
Roald Dahl



Doinua:

Ikusi nuenean
Kopla txikia (7/6 silaba)

- (...)
- | | | |
|--|---|---|
| <p>1 Amonaz mozorrotu
zen otso baldarra
-arropa zen irentsi
ez zuen bakarra-,</p> | <p>7 Neskari adi-adi
zegoen otsoa:
A zer masail gorriak!
A zer txanotxoa!</p> | <p>13 Eta otso zitala
paretik kentzeko,
daunba! tiro bakarrez
utzi zuen seko.</p> |
| <p>2 Soinean berokia,
buruan kapela,
apatxetan zapatak
-a zer pasarela!-</p> | <p>8 Eta pentsatu zuen:
Aldatu da dieta!
Amona sandwicha zen;
hau berriz, txuleta!</p> | <p>14 Handik astebetera,
nahi baduzu jakin,
ni neu topatu nintzen
Txanogorriekin.</p> |
| <p>3 Gero ile guztiak
jarri apain-apain
eta han gelditu zen
Txanogorriren zain.</p> | <p>9 Orduan Txanogorrik:
Amona kuttuna,
bai beroki ederra
soinean duzuna.</p> | <p>15 A zer look aldaketa
begira jarririk:
ez zeraman ez txano
ez kapa gorririk.</p> |
| <p>4 Txanogorri heldu zen
poz-pezik saltari
eta begiratuta
amonaordeari:</p> | <p>10 Ez al duzu ikasi
ipuina, kaikua?
Orain egin behar zen
haginen aipua!</p> | <p>16 Orduan esan zidan
ahoa irria:
Hau dut OTSO LARRUZKO
BEROKI BERRIA!</p> |
| <p>5 zer belarri handiak
dituzun, amona!.
Perfektorik ez dago...
otsoaren broma.</p> | <p>11 Dena dela berdin dit
edozer esanda,
oraintxe jango zaitut
neska mihi luzanga!</p> | |
| <p>6 A zer nolako begi
handiak dituzun!
Parrandaren otea...
otsoak erantzun.</p> | <p>12 Baina gure neskato
ausartak kolpetik
pistola bat atera
zuen gonapetik.</p> | |



EZ GAUDE PRINTZEAREN ZAIN



Ixiar
Eizagirre
Kerejeta



Doinua:
Txatxamatxalinatxu
Kopla txikia (7/6 silaba)

Tirikitena beltza morena
ontza bat txokolate
goizian onena

- 1 Errauskine nazkatu da dena garbitzen pisu baten jarri da bakarrik bizitzen.
- 2 Loti Ederrak ditu begiak ireki: "Printzearen zain ez naiz geldituko beti".
- 3 Basoan ilunpean otsoak gelditu Txanogorritxok hortzak erakutsi ditu.
- 4 Ederrak ez du alboan piztirik izan nahi Edurne Zuri dabil zapirekin alai.
- 5 Printzesa maitemindu da sorginarekin errege dantzan dabil takoi zapatekin.
- 6 Eta hau hola bazan edota ez bazan izan gaitezen libre gure herriko plazan!

Ipuina
bertsotan





**Josu
Landeta
Egurrola**



GEURE BURUEN JABE



Doinua:

**Konplize ditut eta
Zortziko txikia (7/6 silaba)**

Edurnezuri

Badut neure gogo,
badut neure ametsa,
jaso dut inbidia
mespretxu ta ezetza.
Ederra da ipotx ta
printzeen babesa
baina ez naiz izango
inoren printzesa.

Txanogorritxo

Inguruko basoan
bada lore ederrik,
baita orroz dabilen
otso motz okerrik.
Nork dio babesteko
ez dudala indarrik?
Nik nahi dudan bidetik
noa neu bakarrik!

Loti Ederra

Ehun urtetako loan
izan naiz, ai ene!
Esnatzen lagundu dit
printze batek xume.
Ez dut izan nahi beti
menpeko ta ume,
lotia izan naiz baina
orain nabil erne.

Sirenatxoa

Uretatik kanpora,
hara zein gozoa
mutil galant horrexen
irudi osoa.
Maite dut, baina ez dut nahi
izan inozoa,
bizitzeko behar dut
neure itsasoa.

Laurak batera

Printze eta printzesen
sasoia pasa da,
denok gara hauskorak
eta ausartak jada.
Zaindu dezagun elkar
taupadaz taupada,
geure buruak maitez
libre izango gara.



IZAN GAITEZEN



Alaia
Martin
Etxebeste



Doinua:

*Trumoa ortzi beltzean hoska
Berezia (sei puntukoa)*

Printze eta printzesen arteko maitasun erromantikoa ageri zaigu ipuinetan: norbaitek salbatzen gaitu, norbaitek egiten gaitu zorientsu. Besteen zain, besteen mende, besteentzako beti.

Printzesa eder, printzipe **guapo**
Mari Errauskin edota **zapo**..
naranja erdirik ez zazu bila;
zeu osoa **zarelako**.
Zeure begiez bizi, eta ez
besteen **begientzako**
-egin dorretxetik **salto**-
Aske bazara ez duzulako
askatzailerik **beharko**.


Konplexuz gizen ta pisuz **lumak**,
besteentzako panpin **kuttunak**
izan gaitzen agintzen digu
sarritan gure **garunak**.
Izan gaitzke handi zein txiki,
azkarrak edo **tuntunak**,
braketdunak, **barredunak**..
Erakargarri egiten gaitu
gure **berezitasunak**.

Bizitzak dauzka hainbat **zutabe**
pozak, tristurak ta dudak **daude**..
Dena aldatzen da, ta soilik gara
geure buruaren **jabe**.
Ate bat itxi eta beste bat
zabaltzen da parez **pare**;
lotu ta askatu **xuabe**.
Edonor gabe bizi gintezke
eta edonor gu **gabe**.

Gaurrak puskatzen du **iragana**
eta egunak gaua **darama**
eta hasten den bezain natural
bukatzen da **harremana**.
Ez zazu pasa bizitza osoa
begiratzuz **beste(e)ngana**;
bila zazu zeugan **barna**:
zeu zara zeure zorionean
eragin gehien **daukana**.

Jardin handi bat duten **etxeak**
asko balio duten **kotxeak**
bikote beti irripartsuak
Instagrameko **poseak**..
Askatasuna ematen digu
topikoak **birrintzeak**
inperfektu **sentitzeak**
ipuinetan bakarrik daude
printzesak eta **printzeak**.

IPUINA BERTSOTAN



Doinua:

.....

Aukera asko ditugu: ipuin klasiko bat hartu eta bukaera aldatu geniezaioke. Edo pertsonaia ezaguneri rol berriak eman. Edo istorioa geuk sortu...

Pentsa dezagun, bertsoz bertso, ipuinaren egitura zein izango den.

Istoriok hasiera bat, korapiloa eta amaiera beharko ditu.

Kontaktari hasiera eta bukaera emateko esaldiak baliatu beharko ditugu.

Eta gogoan izan: **entzuleak, bukaeran, istorioaren mezua edo irakaspena argi izan behar du.**

Sortaren egitura, bertsoz bertso

1 _____

2 _____

3 _____


4 _____

5 _____

6 _____

Bertso sorta

A series of 18 horizontal grey brush strokes, each with a slightly irregular, hand-drawn appearance, spaced evenly down the page to serve as a writing template.



ASMAKIZUNAK

Bertsoa ulertzeari jarriko diogu oraingoan arreta osoa.
Asmakizunetan jolastuko gara.
Gero, gure bertso asmakizuna sortu genezake...
Ezetz asmatu!





**Andoni
Egaña
Makazaga**



EZETZ ASMATU



Doinua:

Batzutan da argia

Hamarreko txikia (7/6 silaba)

1997ko Txapelketa Nagusian Andoni Egaña Makazagari hitz bat eman zioten, gai gisa, bertsoa osatzeko. Hara zer kantatu zuen.

Batzutan da argia
bestetan iluna
batzutan pilakoa
bestetan astuna
kanpotik ilea du
barruan garuna
lepo gainean denok
daukagun laguna
gehiegik gutxiegi
erabiltzen duna.

Zer da?



ASMAKIZUNA

Igande arratsalde
denen arrazoia
jolasteko tresna da
baina ez da *GameBoy*-a
biguna izan ahal da
baina ez da koltxoia
marka zuri-beltzeko
lur gaineko boia
gol bihurtu daiteke
jo ezkerre goia.

Zer da?



ASMAKIZUNA

Inork hauetakoak
baldin baditu, ai!
aurkitu arte ez da
ibiliko lasai
ez dauzkanak, ordea
bizi dadin alai
ez ditu bilatuko
eta ez ditu nahi.

Aurkitzen badituzu
ez neri ekarri
azkurak ipiniko
bainau oso larri
erantzuna jadanik
nola ez igarri
tira, ez badakizu
barkatu, I'm sorry.

Zer da?



ASMAKIZUNA

Arroz aleak dira
lehenengo aztarna,
nahiz hori aldatu den
urteetan barna.
Honek sorrarazten du
soinu bat laztana,
beste bat isiltzeko
erabiltzen dana.

Dantzatu behar dena
denbora luzean,
ez baita samur sartzen
loaren leizean.
Eskuak ipintzen du
kantu-solasean,
berez mutua baita
eragin ezean.

Honi esker nigarra
liteke konsola,
hartu eta dantzatu
araziaz hola!
Entzun dut zilarrezko
zenbait badagola,
baina haurrari horrek
ez dio axola!

Zer da?



PASA HITZAI!

Orain puntu bakarrean esango zaigu igarkizuna. Ea asmatzen dugun hitz ezkutua zein den. Adi belarria, eta kasu egin errimari... pista ona izango da eta!

A Hau gabe zer litzake gure **ikasgela**?

A RBELA

E Animalari erraldoi ta **elegantea**

E _____

H Iristean estali lepo ta **kokotza**

H _____

B Ikasturte honetan ikasten **gabilitza**

B _____

F Pilotarietak bertan nolako **sasoia**

F _____

I Burdina erakarri ohi du **beregana**

I _____

D Hiri honetan nonbait polita da **guztia**

D _____

G Ez da azukrea baina badu bere **antza**

G _____

J Leku batzutan urri, hemen **ugaria**

J _____

K Motxilan bat badaukat paperez **beteta**

K _ _ _ _ _

O Galtzak josten zulatu egin dit **behatza**

O _ _ _ _ _

U Ukitzen dugu hanka sartzean **putzura**

U _ _

L Goizean jaikitzean ohi daukagun **hura**

L _ _ _ _ _

P Nire gelako horman badut bat **ederra**

P _ _ _ _ _

V Mediterraneo alboan ze **elegantzia**

V _ _ _ _ _

M Gure maiteengandik jasotzen **duguna**

M _ _ _ _ _

S Galtzontziloak bistan ibiltzen da **hegan**

S _ _ _ _ _

Z Iruñeako kaletan sarri **dabilena**

Z _ _ _ _ _

N Bizitzeko jan bila hona eta **hara**

N _ _ _ _ _

T Gustatzen zait letxuga artean **jatea**


T _ _ _ _ _




ERRULETA

Jolas honetan definizio bat edo pista bat emango da aldiro, eta zuk zein hitzi dagokion asmatu behar duzu.

Lehen letra eman ordez, hitzaren bukaera emango zaizu: ea zenbat asmatzeko kapaz zaren!



.....ATA.	Burrumba, soinu ezatsegina.
.....ETA.	Batek galdetu eta besteak erantzun.
.....ITA.	Ederra
.....OTA.	Jaurtiki
.....UTA.	Jaki bitaminaduna. Egunean 5 ale jatea aholkatzen dute medikuek
.....ATE.	Berdinketa
.....ETE.	Husturen aurkakoa
.....ITE.	Aitona, bizkaieraz
.....OTE.	Haiek esaten dute
.....UTE.	Baloiari ate aurrean ostiko jotzea
.....ATI.	Puska
.....ETI.	Inoizen aurkakoa
.....ITI.	Ugaztunek dute
.....OTI.	Esnatzea kostatzen zaiona
.....UTI.	Hurbil ez
.....ATO.	Olentzerok gehien maite duena
.....ETO.	Hezurdura. Mozorro gisa heriotza irudikatzen du
.....ITO.	Kaiolan eduki ohi den txori kantaria
.....OTO.	Bertsolariak egiten duten hanka sartzea
.....UTO.	Lau gurpildun ibilgailua
.....ATU.	Zazpi bizitza omen ditu
.....ETU.	Inori kontatzen ez zaiona; ixilpean edukitzen den kontua
.....ITU.	Entzun
.....OTU.	Sokarekin egiten dugu
.....UTU.	Ixil



ASMAKIZUNA



Doinua:



Egin dezagun gure bertso asmakizuna.
Entzulea despistatzen saiatu gaitzke: beste zer bait pentsaraziko dioten aztarnak emanaz.
Ondo zaindu pistak zein hurrenkeratan eman. Zer ideia jarriko dugu bukaeran?

Hitz ezkutua

Pistak

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____

Bertso asmakizuna

NEURRIA ETA DOINUA




PUNTUA

Bertsoa puntuz puntu osatzen da, esaldiz esaldi: etxearen solairu bakoitza da **puntua**. ●

Puntua esaldi bat da, eta bere azken hitzak **errimatu** egiten du gainerako puntuen azken hitzarekin. «?»

Azken hitz horri **oina** esaten zaio. 🦶

Errima: -ITZA «?»





PUNTUA, OINA ETA ERRIMA



Kopla ezagunak kantatuko ditugu.

Biribildu egingo ditugu **puntuak** (errimaraino doazen esaldiak).

Azpimarratu egingo ditugu **oinak** (errimatzen duten hitzak).

Eta **errima** zein den idatziko dugu (hoskidea den zatia).

Ama begira zazu
leihotik plazara
ni bezalakorikan
plazan ba ote da?



Doinua:

Ama begira zazu

Kopla txikia (7/6 silaba)

Plaza ikus nezake
gaztetxo**z** **beterik**
baina ez dago zure
moduko **besterik!**

Errima: -TERIK

Zerua ilundu da,
euria ari du:
eguraldiak festa
izorratu digu.

Errima:

Dantzan dabilta gogoz
plazan neskatilak,
eta haiei begira
txokoan mutilak.

Errima:

Agur, erromeria
bukatu da jada,
hurrengo igandean
itzuliko gara.

Errima:

Punta, orpoa, punta,
aurrera, atzera,
orain alde batera
ondoren bestera.

Errima:

Neurria
eta doinua



KOPLA TXIKIA

7
6



Doinua:
Orbelak airez aire

Orbelak airez aire ifartxo dultzia landamintz ederretik doian errekoa.



Doinua:
Ikusi nuenean

Ikusi nuenean zure ile latza, iruditu zitzaidan sorginen erratza.



Doinua:
Ai zapotxin!

Ohetik jaiki behar goizero-goizero berriro ohera nahi pix egin ta gero.



Doinua:
Ama begira ezazu

Ama begira ezazu leihotik plazara; ni bezalakorikan plazan ba ote da?



Doinua:
Furra furra

Gaur goizean jaiki naiz suerte onean tanke bat topatu dut neure kafesnean.

KOPLA HANDIA

10
8



Doinua:
Kontu barri bat

Kontu barri bat zuzedidu da Errebaleko kalean, Errebaleko kalean eta andra gazteen artean



Doinua:
Omendu nahian etorri gara

Omendu nahian etorri gara Goierriko bi txoriak eurentzat dira geure eskerrak eta txalo ugariak



Doinua:
Dios te salve

Dios te salve, ongi etorri gabon Jainkoak diela, legiarekin kunpli dezagun Urteberriaren bezpera



ZORTZIKO TXIKIA

7



6



Doinua:
Xarmagarria zira

Xarmagarria zira
eder eta gazte.
Ene bihotzak ez du
zu baizikan maite.
Bertze zenbait bezala
ote zira libre?
Zurekin ezkontzeaz
dudarik ez nuke.



Doinua:
Dama gazte xarmant bat
Ttipi Urruñarra

Dama gazte xarmant bat
jiten zaut bixtara,
iruditzen baitzeraut
zeruko izarra!
Ama batek hazteko,
hori zerbait bada
gure salbatzaileak
kontserba dezala!



Doinua:
Triste bizi naiz eta
Bilintx

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe,
badauzkat bihotzean
hainbat atsekabe.
Maite bat maitatzen det
baina haren jabe
sekula izateko
esperantzik gabe.



Doinua:
Minberatu zaizkigu
Angel Larrañaga

Minberatu zaizkigu
gibel eta heste
norbaitek esango du
ez zala hoinbeste
Durangon hobegoak
gertatu litezke
ahal dezuten guztiak
etorri zaitezte



Doinua:
Kantatzera nijoa
Kaxiano Iburguren

Kantatzera nijoa
neska mutilari
batez ere urtetan
aurreratuari
ezpazaizu gustatzen
bakardade hori
laguna eskaiozu
San Antoniori



Doinua:
Markosen txerria

Markosek egin eban
lastozko zubixe,
bertatik pasatzeko
bera ta txarrixen.
Hasi ziren pasatzen
jausi zan zubixe,
Markosek hartu eban
kristoren ostixe.



Doinua:
Hargin andaluza
Txirrita

Haiziak bidali du
handikan honuntza,
geroztik hemen dabil
gure andaluza.
Hargin ona zela ta
zakurraren putza
bera ereriko dek
ez hakiok bultza



Doinua:
Maritxu nora zoaz

Maritxu nora zoaz
eder galant hori?
Iturrira Bartolo
nahi baduzu etorri.
Iturrian zer dago?
Ardotxo zuria,
biok edango dugu
nahi dugun guztia.



ZORTZIKO HANDIA



10

8



Etena: 5+5



Doinua:

O baserritxo
Lazkao Txiki

O, baserritxo, hartuko dezu
bihotz barrenetikan min,
eskerrak mihi ez dezu eta
ezin dezu gaur hitz egin;
zenbat famili hazi dezuen
Jainkuak bakarrik jakin,
orain bakarrik uzten zaituzte,
ondotik danak aldegin



Doinua:

Kantore berri xarmant batzuek
Bordel

Kantore berri xarmant batzuek
hastera noa kantatzen
inorant denik baldin badago
guztiek jakin dezaten
guztiek badakizue badela
izar eder bat Luzaiden
eztitasunez betea da ta
guztiak ditu xarmatzen



Doinua:

Arratsalde on lehendabizitik
Sebastian Lizaso

Arratsalde on lehendabizitik
entzule zahar ta gazte
zuek patxaran gu urduriak
badago nahiko kontraste
milagrorikan egiterikan
nik behintzat gaur ez det uste
gutxinez ere egingo al det
bazkal aurretik hainbeste (bis)



Doinua:

Zeru altuan zegoen Jaunak
Xabier Lete

Zeru altuan zegoen Jaunak
egina zuen mundua
sei egunetan izerdi patsez
moldata eta ondua
zazpigarrenez deskantsatzia
atera zuen kontua
izadiaren igeltserua
ez zen batere tontua



Doinua:

Txoriak eta txoriburuak
Xabier Amuriza

Bertso berriak lege zaharrea
jartzea dut erabaki
jolaserako sujet bikaina
eskuratu didan bati
bertsolariak zer ziren eta
zer garen ustez badaki
gure burua ezagutzen du
bera baino hobeki (bis)

HANKALUZE ETA HANKAMOTZ

Hankaluzea: Dagokion baino **silaba gehiago** sartzea bertso-lerro batean.

Hankamotza: Dagokion baino **silaba gutxiago** sartzea bertso-lerro batean.



Kopla bakoitzean, akats bat dago. Ea aurkitzen dugun, eta akats bakoitza dagokion irudiarekin lotzen dugun.



Doinua:

Furra furra

Kopla txikia (7/6 silaba)

Gosaldu eta bizkor
goaz eskolara,
idazmahaien gainean
lokartu egingo gara.

Goiz osoan geldirik
ez gaude dotore...
libre utziko
bagintuzte hobe.





NEURRIA ZAINDUZ



Hutsuneak beteko ditugu; alboko hitzen artean egoki datorrena **azpimarratuko** dugu. Kontuz **hankaluzerik eta hankamotzik** egin gabe!

IKASTURTE HASIERA



Doinua:
Furra furra
Kopla txikia (7/6 silaba)

- | | |
|--|---|
| 1.- Berrero _____
motxilak hartuta

barruan sartuta. | eskolara/ oporrak eta gero/ bagoaz
bokatak eta koadernoak/liburu ta arkatzak/gauza asko |
| 2.- Zein zaila _____
_____ t'erdietan,
askoz _____ geunden
udalekuetan! | esnatzea/ ohetik jeikitzea/ den
bederatzi/ zazpi/ sei
okerrago/ lasaiago/ hobeto |
| 3.- Batzutan _____
_____ mendira
_____ oporrak
azkar joan dira. | jatetxeetara/ hondartzara/ noa
bestetan/ zaldiz/ oinetakoekin
aurten ere/ nire/ udako |
| 4.- _____
erregeen pare
egun guztian _____
_____ gabe. | Ederki egon gara/ Hantxe denok ibili gara/ A zer pagotxa
zehar/hondartzan/ han
amaren errietarik/ lanik egin/ dirurik |
| 5.- Lagun berriak _____
_____ mordoa
zaharrak _____
_____ gogo! | aurkitu/ dauzkagu/ egin
ditugu/ genituen/ ditut
ikusteko/ besarkatzeko/ musukatzeko
bageuekan/ banuen/ nuen |
| 6.- _____
denok elkarrekin
irailak _____ onak
_____ berekin! | Orain klasean gaude/ eskolan berrero/ irakasleak eta gu
notizia/ berri/ opari
baditu/ ditu/ ekartzen dizkigu |

KIROLETAKO SUPERGURASOAK



Doinua:

Kontu barri bat zuzedidu da
Kopla handia (10/8 silaba)

1.- Asteburua _____
_____ jolastera
eta _____ pila bat dator
partidua ikustera.

iritsita/ ailegatuta/ da eta
futbolean/ eskubaloian / pilotan
ikus-entzule/ jende/ guraso

2.- _____ hasi ohi dira
_____ ipinita
ez dute _____ txar-txarrik baina
guretzat _____ polita.

Oihuka/oihu batean/ zarataka
ondoan/ bufanda/ harmailetan
asmo/ intentzio/ laguntza
bai/ ez da/ txakurtxo

3.- Beste _____ gurasoekin
sarritan _____ bada
ez dira asko ohartzen baina
_____ egiten gara.

batzuetan/ lagunekin/ taldeko
haserrealdirik/ xextrarik/ minik

4.- Guztia da bat: _____ entzun
eta _____ hastea
nire aitaxok _____ bat du,
ta nik berekin _____

ni/ belarrietatik/ txistua
barrez/ oihuka/ kafea hartzen
auto/ lanpostu bikain/ arazo
kotxea/ bestea/ enpatea.

5.- Jolastu eta gozatzea da
gure _____ apala
Barkatu aita, ni _____ naiz,
ni ez naiz _____

nahi/ asmo/ helburu
haur/ ume/ gaztetxo
normala/ bala/ profesionala



6.- Kirola berez osasuna da,
baina _____ sanoa
horrela _____ baduzu
_____ noa!

niretzat ez da/ gorputzarentzako/ hau ez da
segi behar/ segi nahi/ segi dezagun
etxera/ oportetara/ desapuntatzera



AKATSAK ZUZENTZEN




Kopla hauetan hankaluzeak eta hankamotzak daude. Saia gaitezen konpontzen!
Soberan dauden hitzak ezabatuz , edo falta direnak idatziz .

HERRIKO JAIAK



Doinua:
Orbelak airez aire
Kopla txikia (7/6 silaba)

Eman diegu jai
ongi etorria
doinuz eta kolorez
bete da  gure herria.

Musika entzuten da
plazaren ertzetik.
Buruhandiak doaz azkar
umeen atzetik.

Puzgarrietan salto
jolasetan jolas
parkera denok
elkarrekin goaz.

Tronpeta eta danbor
dinbi eta danba, dinbi eta danba
musika entzuten da
badator txaranga.

Herri kirolariak
dabiltza sasoi
ikuskizuna hasita dago
herriko frontoian.

Presarik ez daukagu
orain etxerako
baimena eman digute gurasoek
jaiak direlako.

Musika jotzen hasi
direnean plazan
inguruko guztiak
dira dantzan.

Nahi dugu elkarrekin
denok gozatzea
jaien helburua da eta
ondo pasatzea.

ATZEKOZ AURRERA



NOLA SORTZEN DA BERTSO BAT?

Bertsolariak gaia entzun eta, lehendabizi, bertsoaren AZKEN PUNTUA pentsatzen du.
Trapolinetik salto egin aurretik, putzua urez beteta dagoela ziurtatzea bezala.



Beraz, bertsolariak erabaki egin behar du zein den bukaeran esango duen arrazoi nagusia, edo azken mezua, edo istorioa non utzi nahi duen.

Filmea nola bukatuko den pentsatzea bezala.




Gero, OINAK ekartzen ditu burura: errimatzen duten hitzak.
Hitz horiekin osatu beharko ditu esaldiak edo puntuak.
HAUTATU egin behar ditu oin egokienak, eta zein ORDENA EMAN ERABAKI.

Bertsoaren eskema osatuz, oinekin.



Bertsoaren eskema egiterakoan, hauxe bilatzen du:
azken mezu horretara entzulea eramateko bidea nola egin.
Nondik hasi kontakizuna? Zer xehetasun eman bidean? Nola lotu azken puntuarekin?

Otsoak basoan Txanogorritxo zein bidetatik eraman pentsatzen duen bezala.



Eta hasi egiten da kantuan!
Oina gogora ekarri eta hitz horrekin esaldia sortuz joaten da. Puntuz puntu.



BERTSOLARIEK BEZALA

Bertsolariek bezala egingo dugu. Gaia entzun, bukaera pentsatu, oinak hautatu eta... hasi!

Gaia: atea zabaldu duzu, eta zure gurasoa ikusi duzu etxea garbitzen, izerdi patsetan. Zuk ere erratza eta trapuak hartu dituzu.


Handwritten lines for the first poem.

 OINAK
-ZAI
-NAHI
-GAI
-...

NIK ERE ZIKINTZEN DUT,
GARBITU ERE BAI

Gaia: igerilekura iritsi zarenean, konturatu zara bainujantzia etxean ahantzi zaizula.

Handwritten lines for the second poem.

 OINAK
-HARA
-IKARA
-BADA
-...

IPURDI BISTAN SARTU
BEHAR URETARA

ERRIMA





OINAK PUNTUAREN BUKAERAN DOAZ



Aukeratu kopla bakoitzerako oin egokiak azpiko zerrendatik eta idatz itzazu hutsuneetan, puntuaren bukaeran.

LAGUNAK



Doinua:
Ama begira ezazu
Kopla txikia (7/6 silaba)

Lagun artean pozik
ibiltzen gara _____
behar ditugunean
ondoan _____

Asteburu denetan
batera zenbat _____
lagunekin beti da
hartu eta _____

Nahiz eta batzuetan
haserretzen _____
lagun egiten gara
berriro _____

Ondoan daukazuna
maitatu _____
berak ere maiteko
zaitu ziur _____

-  **OINAK**
- EZKERO**
- DITUGU**
- EMAN**
- GU**
- GAREN**
- PLAN**
- ONDOREN**
- GERO**

ERREPIDEAK NAGUSI



Doinua:

Omendu nahian...

Kopla handia (10/8 silaba)

Gure herrian dabilta auto

eta kamioi _____

era honetan ezingo dugu

denbora luzean _____

Jostetarako ez da lekurik

gure herriko _____

arazoa da oso larria

eta ez gabiltz _____

Jolastokiak eta parkeak

hori da behar _____

bestela, auto artean pasa

beharko dugu _____

Zarata eta kea ez dira

oso lagun _____

gora belardi berdeak eta

jolaserako _____



OINAK

-TXANTXETAN

-SEGI

-EGUNA

-TOKIAK

-DUGUNA

-EGOKIAK

-GEHIEGI

-KALEETAN



OINAK PUNTUAREN BUKAERAN DOAZ



Bertso hauek oinak falta dituzte. Hauta itzazue oin egokiak azpiko zerrendatik eta idatzi hutsuneetan, puntuaren bukaeran.

**EZ DAKIT ZERTAZ MOZORROTU
INAUTERIETAN**



Doinua:

Sagutxo batzuekin

Hamarreko txikia (7/6 silaba)

Negua ia dago
bere azken **mugan**
eta festa giroa
zabaldu da
otsailean gure
betiko
inauteriak datoz
eta berriz
ea mozorro on bat
aukeratzen **dudan.**

 **OINAK**
-DUDAN (ZALANTZA)
-OHITURAN
-GUGAN

Jantzi koloretsua
loredun **kapela**
aurpegirako sudur
gorria _____
ileorde laranja
berdea _____
uste nuen mozorro
egokia _____
nola ote dakite
denek ni **naizela?**

 **OINAK**
-DUELA
-ZELA
-BESTELA

Cowboyez janzten banaiz

kapela **prestatu**

koadrodun alkandora

amari _____

nire bakero zahar

nire bota _____

inoiz ezin dezaket

jantzia _____

pistolak ez baitzaizkit

sekula **gustatu**.

 **OINAK**
-ESKATU
-OSATU
-ALTU

Badut jantzi marroi bat

larruzkoa **dena**

bururako luma bat

ere _____

Ipar Amerikako

lehengo _____

lagunen esanetan

alferrik dut _____

nik beti egiten dut

indioarena.

 **OINAK**
-DENA
-BADUENA
-INDIGENA

Sorginez janzten banaiz

eskutan **erratza**

txano beltz puntaduna,

ileorde _____

dena beltzez jantzita,

gomazko _____

sudur luzea eta

barretxo _____

denek hartzen didate

amonaren **antza**.

 **OINAK**
-BEHATZA
-GARRATZA
-LATZA

Ez daukat mozorrorik

gabe **egoterik**

ez daukat ez soineko

ez _____

inork bere laguntza

emango _____?

Nire lau mozorroak

kaxatan _____

ba al duzue inork

ideia **hoberik**?

 **OINAK**
-GORDERIK
-ILEORDERIK
-OTE DIT

ERRIMEN FAMILIAK



Kontsonante batzuk, nahiz eta **ezberdinak** izan, **hoskideak** dira: **antzeko soinua dute** eta, horregatik, **errimatzat** onartzen ditugu.

K-P-T KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **KoPeTa**.



-  OINAK
- ZARATA
- ALDAPA
- ARRASTAKA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **ahoskabeak** esaten zaie.
Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, bibraziorik ez dagoela ohartuko gara; kolpe lehor batekin ahoskatzen dira.

M-N KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **aMoNa**.



-  OINAK
- ZAMA
- LANA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **sudurkariak** esaten zaie.
Kontsonante horiek ahoskatzerakoan sudurra tapatzen badugu, ezingo ditugu ahoskatu (kontsonanteak bakarrik ahoskatu).

B-G-R-D KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **BeGiRaDa**.




-  OINAK
- MUNDURA
- DUDA
- MUGA
- KLUBA

*Zergatik dira antzekoak?
kontsonante horiei **ahostunak** esaten zaie.
Eskua eztarrian jartzen badugu eta kontsonantea soilik ahoskatu, bibrazioa sumatuko dugu.

S-Z-X-TS-TZ-TX KONTSONANTEAK

Gogoratzeko: **Sugea**.



-  OINAK
- PRESA
- ERREZA
- KEXA
- TRAKETSA
- AKETZA
- GOMETXA

*Zergatik dira antzekoak?
Kontsonante horiei **txistukariak** esaten zaie.
Haizearen eta sugearen zarata gogorarazten digute.



Sar dezagun oin bakoitza bere errima familian

K-P-T	M-N
B-G-R-D	S-Z-X-TS-TZ-TX




KORRIKA IKARA ABERATSA BISITA PAGA ARABA PROBLEMA BEHAR BADA
AZA KAXA DENA IKA-MIKA ARKATZA KIRTENA TRIPA MARTXA KEMENA GASA



Errima familien sudokua

Ea nork lortzen duen koadroa osatzea... ahalik eta oin gehienarekin!
Horretarako, kontuan izan errimen familiak...


	Pertsona izena	Adjektiboa	Janaria/Edaria	Objektua	Animalia
-ZEA (s-z-x-ts-tz-tx)	HAIZEA ITZEA	LUZEA HEZEA	PONTXEA	GURAIZEA JERTSEA	MAPATXEA
-DOA (BeGiRaDa)					
-ENA (aMoNa)					
-ITA (KoPeTa)					



POTO!

Bertso batean *poto* egitea oin bat **esanahi berarekin** errepikatzea da.

Bertso bakar batean bi oinekin **topo**: horri esaten zaio egitea *poto*. Arreta jar ezazu behingoz, **segapoto** deskuidatu ezkerro baietz egin *poto*!



Poto bila

Euskal mitologiari buruzko kopla hauetan, zenbait *potok* ihes egin diote bertsolariari. Baietz aurkitu!



Doinua:
Furra furra
Kopla txikia (7/6 silaba)

Galtzagorriak dira txiki eta onak, edozein momentutan laguntzaile onak.

Lur azpian bizi den jainkosa da **Mari**, lapurtutakoa kentzen dio lapurrari.

Urrezko orrazia daukate **Lamiek**, eta ahate hankak dituzte Lamiek.

Sorginek edabeak egiten dituzte, sorginen edabeek sendatzen gaituzte.

Tartalok ikusteko du begi bakarra, gizakiak jatea nahi duen bakarra.

Basajaun indartsua ardien zaindari, lagundu egiten dio euskal artzainari.



Poto konpon

Oraingoan, *potoak* aurkitzeaz gain, konpontzen ere saiatuko gara. Horretarako, azpian ditugun oinak erabil ditzakegu. Erne! Agian bertso guztiek ez daukate *potorik*...



Doinua:

Hargin andaluza

Zortziko txikia (7/6 silaba)

Gaur ere etxerako
motxilan ze zama...
Baina ordu erdian,
bukatu dut ama!
Agurtu ditut neba,
ama eta ama
eta korrika joan naiz
lagunarengana.



OINAK

- LANA
- JANA
- DANA
- PLANA

Askok arratsaldea
daukate beteta:
pintura, ingelesa,
solfeo, beteta...
Nik nahiago dut libre
ibili tarteka
parkean ere asko
ikasten da eta!



OINAK

- TRONPETA
- KORNETA
- BALLETA
- KROKETA

Parkera iristean
meriendatu dugu
eta gero putzura
hurbildu gara gu.
Harrapatu ditugu
zazpi zapaburu
baina berriz putzuan
askatu ditugu.



OINAK

- SEGURU
- DINOSAURU
- INGURU
- ASTEBURU

Kroketarena egin
dugu belarretan,
zintzilikatu gara
zuhaitz guztietan...
Gustura egoten naiz
parkean olgetan,
etorri nahiko nuke
egun guztietan.



OINAK

- BENETAN
- HONETAN
- AMETSETAN
- ADARRETAN



HITZ POLISEMIKOAK

Batzuetan *poto* dirudiena ez da hala izaten, errima perfektua baizik!
Hori gertatzen da itxuraz berdina den oin bat errepikatzen denean baina **esanahi ezberdina** duenean.
Adibidez, bertso honetan.

BERRIZ

Oso herri polita
ez ote da **Berriz**
bere jende jator ta
monumentu **berriz**.
Inguruan dituen
herri denek, **berriz**,
kontra egiten diote
prentsan mila **berriz**.



Hau zer da: *poto* ala *hitz polisemikoa*?

Ea bereizten ditugun bertso hauetan zein diren **potoak**. Biribildu itzazu **potoak**.



Doinua:
Dama gazte xarmant bat
Zortziko txikia (7/6 silaba)

Atezainik ez dago
nora joan ote da?
Horregatik sartu naiz
area barnera,
baloia oso gogor
jaurti dut atera
baina atzelariak
buruz du atera.

Hurrengo jokaldian
nolako borroka,
nik bidean galdu dut
eskuineko bota,
aurrera jarraitu dut
jantzi gabe bota,
hala ere golera
ahal izan dut bota.

Azken minutuetan
a ze tragedia:
morea aurpegia
morea begia.
Hori egin didanak
ez dio egia
eta orain jartzen du
txintxo aurpegia.





OINAK URPERATU

Taldeka jarri eta jolas gaitetzen oinak urperatzen. Hara zer egingo dugun:

- 1.- Taldeka jarriko gara (bi lagunekoak, hirukoak, lauakoak...).
- 2.- Bi talde elkartu eta aurrez aurre jarriko gara.
- 3.- Zutabe bakoitzaren laukietan, goian ageri den bukaerarekin hoskideak diren oinak idatziko ditugu. Erreparatu errimak zein familiatakoak diren!
- 4.- Lauki guztiak bete ondoren, beste taldeari lauki baten kokagunea esango diogu (adibidez: -ara, 2.) Taldeak kokagune horretan idatzitako oinaren pista bat eman beharko digu, guk oin hori zein den asma dezagun.
- 5.- Ondoren, beste taldearen txanda izango da.

Arau bakarra: ezin dira oinak errepikatu!

	-ARA	-OTA	-UNA	-ESA
1				
2				
3				
4				

	-ARA	-OTA	-UNA	-ESA
1				
2				
3				
4				

NIRE BERTSOAK



